



Urretxuko udala

## **Urretxuko Bizikidetza eta Immigrazio Plana**

Eskuetan daukazuen dokumentua azken hilabeteotan burutu dugun lan parte-hartzailea jasotzeko ahalegina da.

Ikusiko duzueenez, parte hartu duten eragile guztien hausnarketak aintzat hartu ditugu, eta, are garrantzitsuagoa dena, Urretxun bizikidetza hobetzeko herritarrentzat esanguratsuenak liratekeen jarduerak.

Dokumentuak egun arte egindako bidea islatu arren, garatu ahala ekarpen eta kontraste berriez elikatu beharko da, ahots eta ekarpen berriak bildu, ebaluazio jarrai eta partizipatiboa irizpide izanik.

Izaera irekia azpimarratuz, dokumentu honek Urretxun bizikidetza eta immigrazio arloan lan egiteko abiapuntu izan nahi luke.



Urretxuko udala

## **Aurkibidea**

<b>1. Sarrera.....</b>	<b>3</b>
<b>2. Zenbait kontzeptu-hurbilketa.....</b>	<b>4</b>
<b>3. Urretxuko immigrazio eta bizikidetzaren oinarrizko printzipioak.....</b>	<b>7</b>
<b>4. Bizikidetzarako aldagai garrantzitsuenak.....</b>	<b>10</b>
<b>5. Herritarrek Urretxuko bizikidetzari dagokionez egindako zenbait proposamen.....</b>	<b>26</b>
<b>6. Bibliografia.....</b>	<b>38</b>



## 1. Sarrera

Urretxu udalak, biztanle etorkinen egoerari buruz 2009. urtean egindako diagnosiaren ostean, errealitate aldakor honen berri emango duen prozesuaren kudeaketan pausu bat harantzago joatea hartu du helburutzat; gure inguruko herri gehienek erronka da azken batean: gure jendarteetan gero eta ugariagoa den aniztasunaren kudeaketa.

Jarraian aurkezten den lanak Urretxun elkarbizitza hobetzen lagun dezaketen proposamenak laburbildu nahi ditu, egungo kultur aniztasunak, munduko beste leku batzuetatik etorritako nazioarteko etorkinak direla eta, eskaintzen dituen aukerak baliatuz. Jarraian aurkezten diren proposamenak herritar ezberdinek egin duten eta **Parte Hartuz**<sup>1</sup> ikerketa taldeak dinamizatu duen hausnarketa prozesu kolektibo baten emaitza dira.

Emaitza hauek elkarrizketa pertsonal eta lantegi ezberdinetan egindako hausnarketa kolektiboetatik lortu dira. Bertan, herritarrek gai honetan garrantzitsuenak iruditzen zaizkien auziak nabarmendu dituzte. Dokumentu honetan, parte hartzaileek elkarbizitza kultur-anitza hobetu asmoz definitu dituzten zenbait jardura aurkezten dira; ekiteko kontu konplexua, bizitza sozialeko ia arlo guztietan eragina du eta.

Ikusiko dugun bezala, gai honi aurre egiteko jardura posibleak asko eta askotarikoak dira. Aipatu dugun bezala, elkarbizitzaren fenomenoak bizitzako arlo gehienak hartzen ditu, eta beraz, aukera sorta mugagabea da. Hau dela eta, dokumentu honetan identifikatzen diren zenbait arazori irtenbidea aurkitu nahiak zeharka politika publikoei heltzea eskatzen du, genero edo gazteriarekin loturiko gaietan esaterako.

Ondorioz, azpimarratu beharra dago garrantzitsua dela udaleko arlo eta sail guztiek parte hartu behar dutela onartzen duen esku hartze estrategia batekin jarraitzea, aurre egin nahi diogun konplexutasun izugarri honi erantzun ahal izateko. Aldi berean, garrantzitsua da kontu hauek ez direla arma politiko gisa, partiduek elkarri aurka egiteko erabili behar nabarmentzea. Egoera kontutan hartuta funtsezkoa da fenomenoaren erantzukizunez landuko dela bermatuko duen alderdi guztien arteko akordio politikoa.

---

1 Parte Hartuz demokrazia partizipatiboaren ikerketa eta heziketa talde finkatua da, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politiko, Soziologia eta Hezkuntza Sailak osatua.



## 2. Zenbait kontzeptu-hurbilketa

Urretxu, denboran zehar jende eta kultura ugari batu dituen herria izan da. Gure herriek betidanik ikusi dute jendea irten eta iristen. Beraz, orain, migrazioen fenomenoaz hitz egiten dugunean ez gara fenomeno berri batez ari. Bob Sutcliffe-k gogorazten duen bezala, giza talde ezberdinak<sup>2</sup>, antzinatik egon dira elkarren arteko kontaktuan, elkar joz eta bat eginez gehienetan.

Ondorioz, gaur egungo gizartea (eta gure herriak, hauen artean Urretxu) egoera historiko hauen isla da, emaitza finkorik ematen ez duen eragiketa. Betidanik, eta orain inoiz baino gehiago, ezin ditzakegu gure jendarteak argazki estatiko batekin identifikatu. Ondoz ondoko fotograma sekuentzia amaigabea dira, inoiz bukatzen ez den pelikula osatuz.

Ez da harritzekoa, beraz, biztanleriaren zati handi bat migratzailea zuen gizartea, geroago etorkinak jasoko dituen gune bihurtzea, XIX. mendean Europa guztian hedatuko den berrikuntza teknologikoetan oinarritutako industrializazio baten ondorio gisa. Jakina, prozesu honek sakonki eraldatu zuen gure errealitatea.

Datuetan ikus dezakegun bezala, 1877. urtetik 1975.-era, EAE-ko hazkuntza demografikoaren batz besteko tasa urteko %1,57-koa da, baina orokorrean biztanleria 4,6 aldiz hazten da, 1877. urtean 450.678 biztanle izatetik 1975.-ean 2.072.430 izatera pasatuz. Garai horretan sortzen da gizarte modernoa, sozialismoa, eta bere aldaera ezberdinak, euskal eta espainiar abertzaletasunak. Garai horretan taxutzen da duela gutxi arte ezagutu dugun gizartea.

Urretxuar gizartea, gaur egun bizitzea egokitu zaigun testuinguru ekonomiko, politiko, sozial eta kulturean, jatorri ezberdineko jendeak osatzen du eta etorkizun hurbilean bizilagunen aniztasun handiagoa izango duen errealitateari aurre egin beharko dio. XX. mendearen zati handienean ia etorkin guztiak Espainiar estatuko beste Autonomi Erkidego batzuetatik etortzen baziren ere, gaur egun immigrazioak nazioarteko jatorria du, eta honek areagotu egiten du "atzerritar" deituraren erabilera. Argi dago, bizi garen mundu globalizatu honetan, azken hamarkadetan garraio arloan eman diren aurrerapen teknologikoak, hala nola komunikabideen presentzia globala, mundu mailako egiturazko desberdintasun egoerekin konbinatzen dela, eta honek migrazio berriak bultzatzen ditu.

Ikuspegi honetatik abiatuz, migrazioen gaiari zintzotasunez heldu nahi

---

2 Migrazioena ez da kontu berritzailea, begi bistakoa denez. Bob Sutcliffe-k *Nacido en otra parte* bere liburuan aipatzen duenez, gizakia espezie migratzailea da jatorriz: "...duela 150.000 bat urte Afrikan sortu zenetik, gizakia ekialde hurbilera iritsi zen duela 90.000 urte. 50.000 urte beranduago giza aztarnak dauzkagu mendebaldeko Europan, Australian eta Siberia erdialdean. Ziurrenik duela 15.000 urte gizakiak Amerikar kontinentera iritsi ziren eta azkenik Ozeaniako uharteak kolonizatu zituzten. Eta hipersinplifikaturiko historia honetan migrazioak eman ziren bata bestearen atzetik, gero eta ugariago. Beraz, bizitzeko modukoak ziren Lurreko hainbat leku giza talde migratzaile ezberdinek okupatu, zatitu, berriz okupatu eta berriz zatitu izan dituzte."



## Urretxuko udala

badiogu, **Giza Eskubideekiko** errespetua hartu beharra daukagu abiapuntutzat. Beste era batera esanda, Urretxuko biztanle guztiek, haien jatorria, egonaldiaren luzera, azken finean, haien bizi ibilbidea gorabehera, eskubide eta betebeharrak berberak dituzten komunitatea osatzen dute, inolako murrizketarik gabe. Egia da, biztanleria gutxienez bi ikuspegitatik uler dezakegula. Gure iritziz, biztanleria komunitate politiko batetara mugatzen duena ikuspegi herrena litzateke. Eredu honek biztanleria herritartasunarekin identifikatzen du. Beste ikuspuntu batek, globalizazio garai hauetako errealitatera egokitua, kontzeptu hau edozein gizakirentzat onartzen du<sup>3</sup>. Gure ustez hau da migrazio kontuetan hartu beharreko ikuspuntua, beste leku batean jaio delako inoren aurkako bazterkeria alde batera utziaz.

Bestalde, ezin ahantz dezakegu, kultur eskubideak bermatzerako orduan, hauek ere giza eskubideen parte, eztabaidak sor daitezkeela, nazioarteko migrazioak bezalako auziak egokitasunez lantzeko orduan. Hain zuzen ere, ugariak dira gutxiengo eta gehiengo eginkizunak, elkarbizitza eta tolerantzia edota "bestelako" batzuen etorreraren aurrean demokraziaren iraunkortasunari buruzko eztabaidak. Beraz, badakigu eztabaida sakonak sorrarazten dituen gai baten aurrean gaudela. Are gehiago, krisi ekonomikoa, prekarietatea eta "flexibilitatea" gure herrien egunerokotasunean gizarte arau bihurtu diren une honetan. Berez zaila den giza kohesioa, ia kimera bihurtuz.

Honetaz gain, giza eskubideak, giza harremanak gidatzerako orduan oinarrizko izan arren, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak ez du nazioarteko migrazioaren auziari buruzko aipamenik egiten. Sutcliffe-k (1999: 153) azaltzen duen bezala: *"Mugikortasunari eta orokorrean migrazioei buruz, adierazpenak herrialderen bateko herritartasun eskubidea jasotzen du, herritar hauen mugitzeko askatasuna nazio lurraldean eta herrialde horretatik libreki irteteko askatasuna. Honetaz gain, bada beste herrialde batean babesa jasotzeko eskubidea, jazarpen edo heriotza arriskuan egonez gero. Baina ez da hitz bakar bat ere jasotzen jazarpen politikorik egon gabe beste herrialde batzuetara sartzeari buruz. Irteteko eskubidea dago, baina ez sartzekoa. Isiltasun hau, herrialde bakoitzak atzerritarren sarrera nahi bezala arautzeko daukan eskubidearen baliokidea da"*. Beste era batera esanda, gaur egun ez dago garai hauetako giza migrazio garrantzitsuenarekin, hau da migrazio ekonomikoarekin, zerikusirik daukan eskubideei buruzko erreferentzia araturik. Horrela, autore honek dioenez, *"migrazioari loturiko eskubideak beste eskubide kontzeptu bat eskatzen du: mundua banako bakar bat bezala ikusiko duena, eta ez bere zatien batura gisa"*. (1999: 154)

Aurreko ereduak gainditzeak erreferentzi markoa egoera berrira egokitzea eskatzen du. Ondorioz, lurralde baten parte garen guztiok onartuko gaituzten herritartasun arauak ezartzeko beharra dugu. Aldi berean, beharra duten pertsona

3 Gizaki guztiak berdinak jaiotzen dira duintasun eta eskubideei dagokienez, arrazoi eta kontzientziaren jabe izanik, anaitasunez hartu beharko dute elkar. (*Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala*, 1. art.)



## Urretxuko udala

guztiei laguntza eskainiko dien politika ekonomiko eta sozialak ezarri behar dira, “arrazaren”<sup>4</sup> arabera ezberdintasun eta gizarte bazterkeria ekiditeari bereziki kasu eginez.

Kulturek etengabeko aldaketak jasan dituzte beti, eta gaur egun eraldaketa hauek inoiz baino sakonagoak izan daitezke. Hor ez dago aurre egin diezaiokeen “migrazio politikarik” ( ez harresi, hesi, mugarik...). Globalizazioarekin mendebaldeko bizimoduaren loriak mundu guztira hedatu ditugu eta ezin gaitzke onuradun bakarrak gu izan. Zintzoak izan nahi badugu, eta fenomenoari zintzotasunez aurre egin, onartu beharra daukagu ezin dugula abantailadunen Europa bat mantendu planetako beste leku batzuetan ezberdintasunak desagertu ez eta gehiagora doazen bitartean. Zein puntutaraino dauka miseriak izaera funtzionala, gure kasuan etxe garbitzaile, elbarrituen zaintza, prostituzio eta abarretan islatua?

Horrela, begi bistakoa da beharrezkoa dela gatazkei irtenbidea eman ahal izateko mekanismoak ezartzea, **iraganari eta iristear dagoenari aurre egin** ahal izateko. Eta batez ere, fenomenoak sor ditzakeen ustezko mehatxu eta ahultasun horiek indargune eta aukera bihurtu eta etorkizunean bizikidetzaz aberasgarria izateko.

Fenomenoa uka edo saihestu dezakegu edo baikortasunez aurre egin. Gure ustez, ukoaren aukera eraman ezina da. Gauza batzuei ezinezkoa da mugak jartzea. Eta orain are gutxiago. Tamalez, oso ohikoa da migrazioaren fenomenoak urrunetik begiratzea “gure kontua” ez balitz bezala, betidanik edo aspalditik hemen gaudelako edo azken finean gu “hemengoak” garelako eta beraiek “besteak” dira. Baina pasibotasun hau ez da aholkulari ona. Herritartasuna duten eta ez dutenen artean bereizketa egiten duten gizarteak ez doaz aurrera. Fenomenoak ez dira desagertzen, denborarekin arazo bihurtzen dira.

Aitzitik, errealitatea onartzen badugu, iraganarekin ikasi eta etorkizuna baikortasunez hartzen badugu, herritarrek gero eta ugariagoa den aniztasun hau bizikidetzarako aukera bilaka dezakete. Hau da dokumentu honen oinarria. Eta ikusiko dugun bezala, hau da parte hartzaile gehienek egin duten hautua: beste aldera ez begiratzea, guztiok eskutik helduta bide egitea, Urretxu bizikidetzaz hobetu ahal izateko.

---

4 Manuel Delgadoren (2007: 50) hitzetan: *“bizitza sozial egitekotsu batez ari gara, ez organikoa eta hasiera batean ezta baztertzaila ere, bere momenturik onenak kaleetako eguneroko bizitzan ezagutzen dituen. Salbuespenek ezberdintasun eta bazterkeriaz egindako egitura sozialaren itzala salatu arren, kaleetan barreiatzen den asaldura hau aukera ezin hobea da hierarkia eta egitura itxirik gabe elkarrekin egon gaitzkeela baieztatzeko, uneoro hitzarmenak irun eta deseginez, elkar aintzat hartuz, ez nor garenaren arabera, gertatzen zaigunaren arabera baizik”.*



### **3. Urretxuko immigrazio eta bizikidetzaren oinarrizko printzipioak**

#### **Printzipio gidariak**

Printzipio gidariak Planari izaera ematen dioten oinarrizko irizpide politikoak dira, eta aldi berean, gida gisa, orientabide ideologiko eta etiko gisa jokatzen dute, Urretxuko immigrazio eta bizikidetzaren plan honetan landuko ditugun arazoak edo ondoren, bere garapenean zehar gehi ditzakegun jarduerak egokitasun eta koherentziaz landu ahal izateko.

#### **Bizikidetzaren:**

Bizikidetzaren bizi kalitatearen hobekuntzarekin identifikatzen dugu, hobeto biziarekin, pertsona bezala aberasten gaituzten harreman sozial eta pertsonalen emaitza gisa. Bizikidetzaren koexistentzia baino zerbait gehiago da, gure interakzio sozialerako guneetan kultura aniztasun ugariagoak eskaintzen dituen elementu positiboak nabarmentzen ditu.

Hau dela eta, garrantzitsua da bizikidetzaren ez dela besterik gabe sortzen gogoraraztea, sortu egin behar dela, eta honek, besteak beste, ikasketa, tolerantzia, arau komunak eta gatazkaren erregulazioa eskatzen ditu, ezberdintasunetara egokitzeko zailtasunek bizikidetzaren hori, edota koexistentzia bera arriskuan jar dezaketenean kasuetan.

Gatazka, azken finean, zerbait ondo ez doanaren adierazle da, beraz, kezka iturri izateaz gain, bai herritarrentzat eta bai erakundeentzat ekiteko aukera ere bada, sintomei soilik kasu egin gabe, ondoez hau eragiten duten arrazoi sakonei kasu egiteko aukera.

Bizikidetzaren ez da soilik norberarenganako errespetu eta tolerantzia, batzen gaituenarenganako errespetua ere bada: gune bat, denboraren erregulazio sozial bat, erantzukizun batzuk, baliabide jakin batzuen erabilpena etab.

#### **Kulturartekotasuna balio positibo gisa:**

Kulturak beti egon dira aldaketa eta etengabeko eraldaketaren menpe, eta are gehiago gaur egun, komunikazioak, kultura adierazpenak eta pertsonak berak ere inoiz baino azkarrago mugitzen diren garai honetan. Hau dela eta, beharrezkoa da koexistentzia soilen oinarritutako harremanak baino harantzago doan kulturartekotasuna aldarrikatzea. Horregatik egiten dugu bizikidetzaren oinarritzen den kulturartekotasunaren aldeko apustua.

Kulturartekotasuna migrazio fenomenoaren ondorio positiboa da, baina hau ere ez da besterik gabe sortzen. Ondorioz, benetako trukeko guneak indartu



## Urretxuko udala

behar dira. Are gehiago, truke hauek kultura ezberdinak eta bakoitzaren bereizgarriekiko errespetuan oinarritu behar dira, guztia Giza Eskubideen esparruan.

Honegatik uste dugu pertsonak direla, eta ez kulturak, politika publikoen erdigune izan behar dutenak. Hau horrela, politika horiek ezarri aurreko azterketan, administrazioek ahalegin handia egin beharko dute benetako egiturazko ezberdintasun egoerak aurkitu ahal izateko (sozioekonomikoak, lan arlokoak, erregulaziorako oztopoak...), hauek etengabeko gatazka iturri baitira, eta askotan ustezko kultura arteko bizikidetza arazo gisa ezkutatu ohi dira.

### **Parte hartzea:**

Gaur egun, parte hartze soziala, eragile guztien parte hartze aktibo gisa ulertuta, ezinbesteko baldintza da edozein plan edo politika publikotarako. Beraz, parte hartzeak badu alderdi instrumental bat (helburuak lortzea). Baina, aldi berean, Planaren elementu egiturazkailea ere bada, garatzen hasi zenetik (dokumentua idazterakoan jarraitu den filosofia) abian jarri arte, bertan garatutako proposamen eta jardueren parte diren parte hartzearen jarraipen mekanismoen bitartez.

Beharrezkoa da gizarte parte hartzailea bultzatzea, etengabe beraien burua zalantzan jarriko duten erakundeak, aldaketa eta kritikaren aurrean irekiak, gai publikoen jardunean, eta bizikidetza bultzatzeko orduan ere, gure sistema politiko eta instituzionalaren sakontze demokratikoa indartuko dutenak.

Parte hartze aktiboa komunitatearen garapena baimentzen duen tresna ere bada, sare sozial pluralen indartze gisa ulertzen badugu, zeinak aniztasuna onartuz, elkarlanerako eta elkar zaintzeko loturak sortzen dituen, lurralde jakin bat partekatzen duten pertsonen artean. Urretxu eta bizikidetza plan honen kasuan, dauden sare eta esperientziak indartu eta xede bereko beste berri batzuk sortzea da helburua, komunitate sarea indartzuz.

### **Printzipio eragileak:**

Printzipio eragile gisa ulertzen ditugu helburuak lortzeko aukeratuak izan diren metodologia eta prozeduren berri ematen diguten irizpideak. Antolakuntza irizpide instrumentalak dira eta agerian jarri ditugun printzipio gidarien menpe daude.

### **Osotasuna:**

Plan hau abiarazteko beharrezkoa da ikuspuntu oso eta zeharkako bat, bizikidetzan eragiten duten alderdi guztiak batzen dituenena. Beste era batera esanda, bizikidetza bultzatu eta garatzeko, ikuspuntu integrala duten jarduerak zehaztu behar dira, administrazio (koordinazio) eremu guztiak zeharka hartuko dituenena, genero edota gazteria bezalako auziak bereziki aintzat hartuz.





Urretxuko udala

**Aintzatespena:**

Aurre lana eta esperientziak kontutan hartu behar dira. Dauden sareetatik abiatuz auzotarren egunerokotasunean zuzenean eragiten duten kontuak adostea baimenduko duen egitura irutea da asmoa. Kontua ez da hasieratik ezer diseinatzea, dauden baliabideak erabili eta sentsibiltate eta esperientzia ezberdinak harremanetan jartzea baizik.

**Printzipio gidariekiko koherentzia:**

Bai plan honetako printzipio eragileek bai printzipio gidariek, praktikan jarriko den edozein jarduerak bezala, lan honetan zehar adierazitakoarekin koherentzia argia mantendu beharko dute.



## 4. Bizikidetzarako aldagai garrantzitsuenak

Bizikidetzaren Plan baten lehendabiziko betebeharra lan egiteko aldagai garrantzitsuenen hautemate zuzena izango da. Horretarako ezinbestekoa da bi aldagai mota bereiztea. Aldagai batzuk eraginkorrak dira, eta besteak berriz, mendekoak dira.

- Eragin handiena duten aldagaiak beste batzuei eragiten dietenak dira. Horrela, esaterako, aurreiritziak ezjakintasun kultural edo pertsonalean eragiten duten aldagaiak dira.
- Bestalde, aldagai garrantzitsuenak beste batzuen ondorioz sortu edo indartzen direnak dira. Horrela, esaterako, aurreiritziak sarritan komunikabideen edo pertsonen egoera ekonomikoaren mende egon daitezke.
- Aldagai bakoitzak eragina izan dezake eta beste askorengan, eta beste askoren mende egon. Baliteke aldi berean mendeko eta eraginkor diren aldagaiak aurkitzea. Horrela, aurreiritziak ezjakintasunean eragiten dute, ezjakintasunak aurreiritziak indartzen dituen neurri berean.

Zergatik desberdintzen ditugu? Sarritan mendeko aldagaiei aurre egiten saiatzen garelako, baina konponbidea aurkitu ahal izateko aurretik, lehenengo aldagai horrengan eragina duten beste aldagai eraginkor batzuk indargabetu beharko ditugu. Baina gure jarduerekin **aldagai eraginkorrei aurre egiteko** gai bagara, mendeko beste aldagai batzuei irtenbidea ematen ari gara. Ikusiko dugunez, ezjakintasun kulturala bezalako aldagai eraginkorrak aurreiritziak sortzen ditu, helburu komunak galarazten ditu, enpatia zailtzen, etab... Beraz, beste kultura batzuetako pertsonen ezagutza zuzena ahalbideratzen duten jarduerak aurreiritzi faltsuak desagertzen lagunduko dute, helburu komunak bilatzen, eta baita elkarrekiko enpatia indartzen ere.

Aldagai eraginkorrenak eta mendekoak identifikatzeko modu bat fluxu-diagramaren teknika erabiltzea izan daiteke. Teknika honen bidez lantegietan parte hartzen dutenek beraien ustez bizikidetzan gehien eragiten duten aldagaiak identifikatzen dituzte. Zenbatu ostean, parte hartzaileen arteko eztabaidari ekiten zaio, aldagai bakoitza sarrera bikoitzeko taula batean kokatu ahal izateko.

- Horrela, aldagaiak arau edo erakundearen menpe egon daitezke, historia edo momentuaren menpe. Auzi hau garrantzitsua da, talde bakoitzak aldagaiak nola interpretatzen dituen ikus baitezakegu, erantzukizunak erakundeei, tradizioari edo momentuari egotziz.
- Aldi berean parte hartzaileek aldagai hauen konponbidea gure eskuetan dagoen edo ez aipatu behar dute, eragin ahalmenik daukagun, edo konpon ditzakegun. Auzi hau, aldi berean, taldeek beraien arazoaren konponbidea bideragarri ikusten dute jakin ahal izateko ezinbestekoa da, eta arazo hauen aurrean onartzen duten erantzukizuna zenbatekoa den.



## Urretxuko udala

Zehazki, Urretxuko bizikidetzan eragin gehien duten aldagaiak identifikatu ahal izateko, bi lantegi egin ziren.

- Lehenengoa immigrazioarekin harreman zuzenik ez duten pertsonen osatua zegoen. 14 pertsona etorri ziren, gehienak emakumeak, adin guztietakoak.
- Bigarreneka etorkinak edo arrazoi pertsonal, profesional edo ekintzaileak zirela-eta immigrazioarekin harreman zuzena zuten pertsonak etorri ziren. Urretxun, Txinan, Bolivian, Senegalen eta Marokon jaiotako gizon eta emakumeak hurbildu ziren, kopuru berdinean.

Kontutan hartu behar da aldagaiak, "kontrolaezinak", "eragin dezakegu" edo "kontrolpean" izendatzerako orduan "gu" esatean (gure kontrolpean, guk eragin dezakegu edo guk ezin kontrola ditzakegu) Urretxuko biztanle guztiez ari garela, erantzule politiko eta teknikoak barne.

Lehenengo lantegian parte hartu zutenek ondorengo aldagaiak identifikatu zituzten:

	<b>Arauk / erakundeak</b>	<b>Ohitura</b>	<b>Egoera</b>
Kontrolaezina	Beldurra		
Eragin dezakegu	Zarata Delinkuentzia Espazio publikoen erabilpena	Integratu nahi eza Eskubideak bai; betebeharrak, ez Ezaugarri bereizgarriak Aurreiritziak Estereotipoak Lehentasun ezberdinak Nagusitasun jarrera Ohiturak Tokiaren inguruko jakin-min falta	Gizarte klaseak Baliabide ekonomiko eskasia Exijentzia jarrera Ezezagunari beldurra Nortasuna galtzeari beldurra Jarraitutasun eta eginbide falta



## Urretxuko udala

		Enpatia falta Komunikazioa	
Kontrolpean	Biztanleriaren erantzukizuna  Elkargune falta  Laguntzen inguruko ezjakintasuna  Normak betearaztea	Kultura arteko ezagutza falta	Mehatxuak  Taldearen araberako onarpen ezberdina

Bigarren lantegian parte hartu dutenek ondorengo aldagaiak identifikatu dituzte:

	<b>Arauk / erakundeak</b>	<b>Ohitura</b>	<b>Egoera</b>
Kontrolaezina		Jende itxiagoa Egoera ekonomikoa Mesfidantza Hedabideak	Alderdi politikoen diskurtsoak
Eragin dezakegu	Elkarte eza Legez kanpoko egoera	Intolerantzia Hizkuntza Aurreiritziak, arbuioa, bereizkeria Kulturen nagusitasuna Beldurra Pixkanaka	Harremanetarako gune falta Bizikidetzaren falta Behar komun falta Lotsabide publikoa



		hurbiltzeko beharra	
Kontrolpean		Kulturen inguruko ezjakintasuna ezagutza pertsonal falta	Kulturen inguruko ezjakintasuna ezagutza pertsonal falta

## 1. Aldagaien deskribapena

Lantegi hauetan jasotako informazioa antolatzen dugunean, zenbait gairen berri ematen saiatuko gara.

- Alde batetik, lantegi bakoitzeko parte hartzaileen ezaugarriek aldagaiak identifikatzeko ikuspuntuak baldintzatuko dituzte. Hala ere, ikusiko dugun bezala, bi lantegietan identifikatuak izan diren aldagai ugari daude eta ohartuko garen moduan, eraginkorrenak dira.
- Beste alde batetik, aipamen berezia merezi dute kontrolatu ezintzat eman diren aldagaiek, konponbidea herritar sareetatik at gelditzen baita.
- Azkenik, eta aldagai bakoitzaren izaera eraginkor edo mendekoa zehaztu aurretik, herritarren ustez arau edo erakundeen ardurapean dauden horiek identifikatuko ditugu, kontutan hartu beharko baitira, erakunde publikoek landu ahal izateko.

### 1.1. Aldagai ezberdinak lantegi bakoitzean

Uste zen bezala, emaitzak ezberdinak dira lantegi bakoitzean, zenbait kasutan bat etorri arren.

- Alde batetik, ikus dezakegun bezala, immigrazioarekin harremanik ez duten pertsonen osaturiko lantegian bizikidetzarako negatiboak diren aldagai ugari identifikatu ziren, eta erantzukizuna etorkinei zegokien (integraziorako nahirik ez, isolamendua, lekuarekiko interesik ez, konpromiso falta...). Beste alde batetik, aurreko taulan ikusten denez, etorkinek eta immigrazioarekin harremana duten pertsonen osatutako lantegian beste aldagai batzuk identifikatu ziren eta erantzukizuna sortzez bertakoak direnei zegokien (bazterkeria, etorkin batekin ikusia izateagatik lotsa, bertako kulturaren nagusitasun sentimendua...).
- Hala ere, parte hartzaileek azpimarratu bezala, aldagai hauek mendekoak dira oso. Esaterako, lehenengo taldean egindako gogoeta, etorkinek integraziorako nahirik erakusten ez dutela dioena, ezagutza zuzenik ez izateak eragindako aurreiritziaren ondorio izan daitekeela onartzen da; edo



## Urretxuko udala

etorkinen lehentasuna herrian integratzea baino paperak eta lana lortzea direla esaten denean. Berdin bigarren taldeak sortzez bertakoak direnek bertako kultura nagusiagotzat dutela esaten dutenean. Hau ere, parte hartzaileek azpimarratzen duten bezala, aurreiritziak mugatuz edo ezagutza falta pertsonal edo kulturala gaindituz konpon daiteke.

- Esanguratsua da aldagai bat, beldurra, bi taldeetan aurkitzen dela, baina esanahi desberdinarekin. Horrela, kasu batean, herritar senik gabeko jokamoldeetatik edo ez ezagutzetik eratorritako beldurrak aurreiritziak elikatzen ditu; bestean, irregulartasun egoeratik eratorritako beldurrak harremanak zailtzen ditu. Bi kasuetan, beldurra bizikidetzat oztopatzen duen faktore bihurtzen da.
- Dena dela, garrantzitsuena ez dira ezberdintasunak, bi taldeen arteko antzekotasunak baizik. Horrela, bere garrantziagatik nabarmendu ditzakegu ezagutza pertsonal eza, ezagutza kultural eza, elkartzeko espazio falta, egitasmo komunik eza, hizkuntza... Ikusiko dugun bezala aldagai oso eraginkorrak dira eta ondorioz landu egin behar dira, oso mendekoak diren aldagaiak konpontzen lagun dezaten.

### **1.2 Aldagai kontrola ezinak**

Nahiz immigrazioarekin kontaktu zuzenik gabeko pertsonak osatutako taldean, zein bestean, arazo gehienak eragin ditzakegun aldagaiak dira edo herritarrek, teknikari taldeak eta politikariek osatzen duten gu horrek kontrola ditzakeenak. Aitzitik, gutxi dira aktoreek kontrolatu ezinak direla uste duten aldagaiak.

Immigrazioarekin harremanik ez duten pertsona taldean kontrolatu ezina den aldagai bat identifikatu zen, eta “kontrolatu ezin” eta “eragin dezakegu” artean dauden beste zenbait.

- “kontrola ezin”-tzat jo zuten bakarra beldurra izan zen, jokamolde oldarkorra duen gutxiengo batek sortua. Edozein kasutan, aldagai hau arau edo erakundeen zutabearen kokatuz, erakundeek neurri egokiak hartuz gero, aldagaia indargabetu litekeela, edo eragin dezakegun aldagai bat izatera pasatuko zela ikustarazi nahi da. Zentzu honetan, kontrolatu ezin den aldagai gisa kokatzean zenbait jokoera oldarkorrek herrian eragiten duten larritasuna agerian gelditzen da. Honi, kontutan eduki beharko litzatekeen zigorgabetasun sententzia gehitu beharko genioke, beldurrarena oso aldagai eraginkorra baita.
- Egoeraren arabera kokatzen diren beste bi aldagai eta “kontrolatu ezin” eta “eragin dezakegu” artean kokatzen direnak, klase arteko ezberdintasuna eta baliabide ekonomiko murrizak dira. Parte hartzaileek badakite aldagai



## Urretxuko udala

hauek egitura-proposamenak behar dituztela eta hauek ez daude udalerrriaren esku. Hala ere, ezberdintasunak arintzen lagun dezaketen politika publikoak abian jar daitezkeela eta jartzen direla nabarmentzen dute.

- Ezaugarri bereizgarriak aldagaia ere “kontrola ezin” eta “eragin dezakegu” artean kokatzen da. Auzi hau garrantzitsua da, “ezaugarri bereizgarriak” “estereotipo” eta “aurreiritziei” loturik baitaude. Ondorioz, taldeak “ezaugarri bereizgarriak” aldagaiaren izaera negatiboan eragin daitekeela uste du, zenbait jokamolde negatibo beste kultura batzuei lotutako ezaugarriekin lotzen dituzten estereotipo eta aurreiritziak mugatzen diren neurrian.
- Aipatu beharra dago talde honetan, parte hartzaileek “kontrolatu ezin” eta “eragin dezakegu” artean kokatzen dituzten beste bi aldagai identifikatu zituztela. Bata etorkinen integratziorako nahirik eza da. Bestea etorkin batzuen aldetik eskubide eskaera ez datorrela betebeharrak onartzearekin bat (eskubideak bai; betebeharrak ez). Garrantzitsua da parte hartzaileen ustez aldagai honek ez diela etorkin guztiei eragiten azpimarratzea. Argi utzi nahi da, ondorioz, integratziorako nahirik eza ez dela etorkin guztiekin lotzen, gutxiengo batekin baizik. Azpimarratu nahi den bigarren auziaren arabera, aldagai hauek sortzez bertakoak direnen artean ere identifika daitezke, Urretxun, bertan jaio diren eta komunitatean integratu nahi ez duten pertsonak aurki baitaitezke eta baita zenbait betebeharrak betetzeko prest egon gabe eskubideak eskatzen dituztenak ere.
  - “integratu nahi ez” hori “kontrola ezin” eta “eragin dezakegu” artean kokatzea zenbait arrazoren arabera da. Alde batetik, taldearen ustez ezinezkoa da nahi ez duena integratzera behartzea. Beste alde batetik, “integratu nahi ez” hori beste hainbat aldagairen menpe dagoela kontutan hartzen da (aurreiritziak, ezberdintasun soziala, hizkuntza aniztasuna, bertan sortutakoen nagusitasun egoera, etab.). Ondorioz, parte hartzaileen ustez, aipatutako auzi hauek konpondu heinean “integratziorako nahia” handitu egingo da.
  - Bigarren aldagaia (“eskubideak bai; erantzukizunik ez”) beste aldagai batzuen eraginpean koka dezakegu, esterako, ezberdintasun egoera, lehenetsun ezberdinak, esijentzia jarrera. Ondorioz, eskubideen eskaera eta betebeharren ukatze jarreran eragiten duten aldagaiak konpondu ahala, aldagai hau ahuldu egingo da.
  - Azkenik, taldearen arabera zenbait kasutan integratziorako nahirik ez edo eskubide eskaera eta betebeharren ukatze jarrerak egon arren, egia da iritzi hauek askotan aurreiritzietan besterik ez direla oinarritzen eta ez datozela errealitatearekin bat.



## Urretxuko udala

Laburbilduz, immigrazioarekin harreman zuzenik ez duen taldearen ustez,

1. Aldagai gehienak konpon daitezke edo konponbidean lagun daiteke.
2. Irtenbideak guztion lana eskatzen du, egoera edo jatorria mugatzaile izan gabe.
3. Aldagai batzuen konponbideak herriaren esku ez dauden egiturazko estrategiak eskatzen ditu, baina, hala ere, herri mailan konponbidean lan egin daiteke eta egin behar da.
4. Itxuraz kontrola ezinak diren aldagai askoren irtenbidea ustezko arazo horren faltsutasuna onartzen uzten ez diguten aurreiritziak gainditzean datza.
5. Beste kasu batzuetan, konponbide zaila duten aldagaien garrantzia hauek elikatzen dituzten beste aldagai batzuk landuaz muga daiteke.

**Etorkin eta immigrazioarekin harreman zuzena duten pertsonekin** egindako lantegiaren emaitzak aztertzean, kontutan izan beharreko lehenengo elementua zera da: bizikidetzan eragiten duten eta “kontrola ezin” bezala identifikatzen diren aldagai kopurua handiagoa dela. Argi dago hau errealitatearen ezagutza handiagoa delako gertatzen dela, eta parte hartzaileak ez dira, beraz, hain baikorrak.

- Kontrolatu ezinik gelditzen diren zenbait aldagai, irtenbidea ez dagoelako Urretxu herritarren esku, komunikabideen betekizuna, eta alderdi politikoen diskurtsoen pisua dira. Herriko komunikabideek izan dezaketen garrantzia positiboa aipatu arren, euskal egunkarien diskurtsoa aldatzea oso zaila da, eta are zailagoa telebistena. Diskurtso honek aurreiritzi eta estereotipoetan eragiten du. Aldi berean, herri mailan bizikidetzarako kaltegarriak diren jarrera alderdikoiak saihestu daitezkeela jakin arren (harreman zuzenaren bidez edo bozka bidez jarrera negatiboak zigortuz), eskala altuagotan alderdien diskurtso nagusia aldatzeko ezer gutxi egin daitekeela azpimarratzen da.
- Kontrolatu ezin diren beste aldagai batzuk krisi ekonomikoa eta egoera sozioekonomikoa dira, eta hauen eraginez, bizikidetzaren kaltetan, aurreiritziak areagotu daitezkeela uste da.
- Gainera aldagai hauei intolerantzia eta mesfidantza gehitu behar zaizkie. Gero eta kulturantzagoa den errealitatea onartu nahi ez dutenekin ezer gutxi edo ezer ezin dela egin uste da. Dena dela, parte hartzaileek kontrolatu ezinako aldagai gisa definitu arren, zenbaitetan, mesfidantza murrizten lagun dezaketen jardueren bidez, haien eragina muga daitekeela uste dute.
- Azkenik, izaera kultureko azken aldagai bat identifikatu zen, “bertako jendea beste leku batzuetakoa baino itxiagoa” dela dioena. Izaera hau kontrolatu ezintzat hartu zen eta beste aldagai batzuetan asko eragiten du, harreman zuzena edo harremanak garatu ahal izateko espazioei esker bere eragina muga daitekeen arren.





## Urretxuko udala

Laburbilduz,

1. Kontroletik kanpo, egoera ekonomikoaren mende edo beste aktore batzuen mende (komunikabideak, estatu mailako alderdiak) dauden aldagaiak;
2. Intolerantzia eta mesfidantza, harremana, ezagutza zuzena eta aurreiritziak gainditzeari esker muga daitezke herritarren gehiengoan (baina ez herritar guztien artean)

### **1.3 Kontrolatu ezinak ez diren aldagaiak**

Ikusi berri dugun bezala, kontrolatu ezin diren aldagaiak gutxiengoa dira bi taldeetan. Hori ez da berri txarra, parte hartzaileek sinisten baitute erakunde eta herritarrok, jatorria gora-behera, elkarrekin lan eginez gero bizikidetza hobetzeko gai izango garela.

- Elementu esanguratsua da *immigrazioarekin harreman zuzenik ez duten pertsonen* lantegiko parte hartzaileek aldagai gehienak eragin dezakegun elementu gisa izendatzen dituztela eta Urretxuko herritar, tekniko eta erakundeetako kideen kontrolpean dauden elementu gisa. Izendatze honek herrian dagoen gogo ekintzailea agerian uzten du, baita herritarren arteko jarrera baikorra ere. Bi auziak dira garrantzitsu, immigrazioarekin harremanik ez duten herritarrek bizikidetza arazoak konpontzea haien betebeharra ere badela kontutan hartzen dutela islatzen baitu, eta horrela, konponbidean guztiok parte hartu behar dugula onartzen da.
- Bigarren taldean, *etorkin eta immigrazioarekin harremana duten pertsonen* osatutakoan, parte hartzaileak ez dira hain baikorrak kontrolpean dauden aldagaiak identifikatzerako orduan. “Ezagutza pertsonal falta” eta “beste kulturen ezagutza falta” besterik ez dituzte talde honetan sailkatzen. Identifikatzen dituzten aldagai gehienak eragin ditzakegunak dira. Azken finean, aurreko taldeak baino eszeptizismo handiagoa erakusten dute.

### **1.4 Arau edo erakundearen mende dauden aldagaiak**

Erakunde eta arauen mende dauden aldagaiak identifikatzeko orduan ere nabariak dira bi taldeen arteko ezberdintasunak.

Horrela, *etorkinek eta immigrazioarekin harremana dutenek*, alde batetik paperik ez izatearen garrantzia azpimarratzen dute. Beste alde batetik, etorkin erakunde eta erakunde mistoen gabezia ere nabarmentzen dute. Aldagai hau arauen zutabearen kokatzen du taldeak, Udalak Urretxuko biztanle guztiok parte har dezaketean etorkin sare eta bizikidetza sareak eratzerako orduan betekizun garrantzitsua daukala azpimarratu nahian.



## Urretxuko udala

Bere aldetik, *immigrazioarekin harreman zuzenik ez dutenen* taldeak, hasieratik jarrera ezberdina du, eta arau-erakunde esparruan kokatzen ditu beldurra, delinkuentzia, arauekiko errespetua, espazio publikoen erabilera edo zaratak bezalako aldagaiak. Azken finean, oso aldagai eraginkorrak dira, aurreiritziak elikatu eta kontaktua zailtzen dutenak. Konpon daitezke, erakundeek bizikidetza araukiko errespetu arduratsua behartzen badute, arau-hauslearen jatorria gora-behera. Hauen alboan konponbiderako erakundeen babesa behar duten beste aldagai batzuk kokatzen dira; beste taldearen ildo beretik doazen aldagaiak. Horren adibide da erakundeei jarrera ekintzailea eskatzea, elkartzeko espazio komunen eraketa erraz dezaten.

Laburbilduz, parte hartzaileek udalari eskatzen diote, alde batetik jatorria gora-behera bizilagunen antolaketa erraztuko duten mekanismoak martxan jartzea, eta beste aldetik bizikidetza arazoak ekidingo dituzten neurri argiak hartzea, arau-hauslearen jatorria gora-behera.

## 2. Mendekoagoak diren aldagaiak

Parte hartzaileek aldagaiak sarrera hirukoitzeko taulan kokatu ostean, dinamikak aurrera jarraitzen du, eta aldagai arteko harremanak ezartzen dira.

- Horrela, esaterako, adierazi den bezala, araukiko errespetu ezak aurreiritzietan eragiten badu, lehenengo aldagaitik bigarrenean doan gezi bat marrazten da, aldagai bat bestearen mende dagoela adierazi nahian.
  - o (Arauekiko errespetu eza ⇔ aurreiritziak).
- Zenbait kasutan elkar eragin eta elkarren mende dauden aldagaiak badira, adibidez, ezagutza pertsonal ezak alde batetik aurreiritzietan eragiten duela onartzen badugu eta beste aldetik aurreiritziek kontaktu pertsonala oztokatzen dutela. Harreman bikoitz hau joan etorriko gezi baten bidez adierazten da.
  - o Ezagutza pertsonal eza ⇔ aurreiritziak

Modu honetan, gezi gehien jasotzen dituzten aldagaiak aldagai mendekoenak dira. Hau da, beste aldagai batzuen eragina dela eta garrantzia indartzen duten aldagaiak dira.

*Immigrazioarekin harreman zuzenik ez duten pertsonen* taldean identifikaturiko aldagai mendekoenak hauek dira:

Integratu nahi eza, ondorengo aldagaien mendeko:

- Jarraitutasun falta eta konpromiso falta
- Hizkuntza aniztasuna



## Urretxu

- Bertako kulturaren nagusitasun jarrera
- Lehentasun ezberdinak
- Etorkinekiko aurreiritziak
- Baliabide ekonomiko urriak eta ezberdintasun egoerak

Etorkin askok eskubideak eskatu baina betebeharririk onartzen ez duteneko ustea ondorengo aldagaien mendekoa da:

- Baliabide ekonomiko urriak
- Laguntzak jasotzen dituztenen ezagutza faltatik eratorritako aurreiritziak, gezurra izan arren etorkinekin lotzen direnak.
- Etorkinen exijentzia jarrera; gaur egungo errealitatea ondo ezagutu gabe inork ez dituen eskubideak eska ditzaketela pentsatzera irits daitezke.
- Lehentasun ezberdinak, ahultasun ekonomiko egoeretatik eratorriak izan daitezkeenak.
- Aurreiritziak, krisi eta baliabide murrizketa orokorreko egoeretan are gehiago hedatzen direnak.
- Immigrazioa delinkuentziarekin, arauetikiko errespetu faltarekin, etab. lotzea.

Arauekiko errespetu eza, ondorengoek elikatua

- Delinkuentzia
- Zarata
- Ohitura anitzak
- Ezjakintasun kulturala
- Lehentasun ezberdinak
- Integrazzeko nahirik eza

Ezezagunarekiko mesfidantza, ondorengoetatik eratorria:

- Kontaktu pertsonal falta
- Ezagutza kultural falta
- Identitatea galtzeari beldurra
- Enpatia eza
- Estereotipoak
- Aurreiritziak

Enpatia eza ondorengoetatik eratorria da:

- Baliabide gutxiko jendarteak izatea
- Ezagutza falta
- Nagusitasun jarrera
- Komunikazio arazoak
- Aurreiritzi eta estereotipoak



## Urretxu

- Hizkuntza
- Lehentasun ezberdinak

*Etorkin eta immigrazioarekin harreman zuzena duten pertsonen* taldean identifikaturiko aldagai mendekoenak hauek dira:

- Jatorriz bertakoak diren zenbait pertsonak etorkin batekin ikusia izatean erakusten duen lotsa. Hau ondorengoan mende dago:
  - o Aurreiritziak
  - o Bizikidetzaren falta
  - o Kultur nagusitasun jarrera.
- Etorkinek harremanak izateko dituzten zailtasunak, ondorengoan mende daude:
  - o Paperik eza
  - o Kanporatuak izateari beldurra
  - o Aurreiritzi eta estereotipoak
  - o Hizkuntza
  - o Jatorriz bertakoak diren zenbaiten nagusitasun jarrera.
  - o Jendea beste leku batzuetan baino itxiagoa izatea.
- Ezagutza pertsonal eza ondorengoetatik eratorria da:
  - o Aurreiritziak
  - o Etorkinek harremanak izateko dituzten zailtasunak
  - o Kultur nagusitasun jarrera
  - o Hizkuntza
  - o Paperik ez izatearren kanporatuak izateari beldurra

### **3. Aldagai nagusi bat, bere mendekotasun eta eraginagatik: aurreiritziak**

Ikus dezakegun bezala, aurreiritziak izatea aldagairik eraginkorrenetarikoa da. Baina, aldi berean, konponbide zaila duen aldagaia da, oso **mendekoa** da eta.

Aurreiritziak areagotu egiten dira ondorengo aldagaiak direla-eta:

- Enpatia eza
- Ezezagunarekiko mesfidantza
- krisia
- Kultura arteko ezjakintasuna
- Ez ezagutza pertsonala
- Elkartzeko gune falta
- Lehentasun ezberdinak
- Hizkuntza, etab.



## Urretxuko udala

Jakina da aurreiritziak indartu egiten direla bizikidetza mintzen duten zenbait pertsonen jardunarekin, zaratak direla eta, mehatxuak, beldurra eragiten dutelako, arauak errespetatu ez, exijentzia jarrerekin, eskubideak eskatuz eta betebeharrak ukatuz. Egia da, integrazteari uko egiten dioten etorkin talde edo pertsona bakanak aurki daitezkeela; aurreiritzi hau gainontzeko etorkin guztiei helarazten dieten jarrerak.

- Esan dugun bezala, aipatu berri ditugun jarrera hauek, gutxiengo batengan nabarmenak, etorkin guztiei eragingo dien aurreiritzi bihurtzeko dagoen arriskua kontutan hartu beharreko arazoa da. Honek jarrera negatibo hauek jatorriz bertakoak diren askorengan ere aurki daitezkeela onartzea eragotzi dezake.
- Ondorioz, azpimarratu beharra dago, eragileak gutxi izan arren, aurreiritzien ondorioz etorkinak orokorrean zarata, mehatxu, arauetikiko errespetu eza, exigentzia jarrera, eskubideen eskaera eta betebeharren ukoa, etab.-ekin lotzen direla.
- Auzi hau oso garrantzitsua da, eta behin eta berriz azpimarratu du *immigrazioarekin harreman zuzenik* ez duten pertsonen taldeak. Behin baino gehiagotan aipatu dute bizikidetza kaltetzen dutenak gutxi izan arren, jatorriz bertakoak diren herritarrek erantzukizunak etorkin guztien gain ezartzeko joera dutela.
- Ondorioz, jarrera hauek ekidin edo mugatuko dituen kontrol publikoa ezinbestekoa da bizikidetzarako eta eragin positiboa du komunitate guztiarengan, batez ere etorkinen kasuan, beti beraiengana hedatzen den aurreiritzia ezabatzen baita.

Tamalez, bizikidetzarako kaltegarriak diren jarrerak etorkinengan berezkoak balira bezala identifikatzeak bizikidetzan negatiboki eragiten duten aurreiritziak sortzen ditu, enpatia eza eta ezezagunarekiko mesfidantza areagotuz, ezagutza kultural eta pertsonala eragotziz, elkartze puntuak edo lehentasun komunak bilaketa ezinezko bihurtuz.

### 4. Aldagai eraginkorrak

Aipatu bezala, mendekoagoak diren aldagaiak aldagai eraginkorra goetatik bereiztea garrantzitsua da. Horrela, aldagai mendekoenak gainditzea lortuko dugu, desagertu edo eragiten dieten aldagaien pisua gutxiagotu ahala. Horregatik, aldagai eraginkorrak zehaztea garrantzitsua da, hauek aldarazten saiatuz eragiten dieten beste hainbat aldagaientzako konponbideari ekiten baitiogu.

Ikusi dugunez, **aurreiritziek** eragin zuzena dute aldagai askorengan, bizikidetzan, elkarrekiko harremana, elkarri buruzko jakintza etab. oztopa ditzakete,



## Urretxuko udala

kultura edo hizkuntzarekin zerikusirik ez duten herritar senik gabeko jokaerak etorkin guztiei egotziz.

Baina aurreiritziak beste aldagai askoren eraginpean daudenez, nekez desagertuko dira, elikatzen dituzten aldagai horietan esku hartzen ez badugu. Jarraian ikusiko dugunez, aldagai eraginkorrenen artean gehienek aurreiritziak elikatzen dituzte, beste aldagai askorengan eragiteaz gain. Ondorioz, proposatuko ditugun neurri politikoak eraginkorrenak diren aldagai horiek gainditzera dira zuzenduak, lan horrek aurreiritzien pisua arintzen lagunduko duela jakitun.

### **4.1 Delinkuentzia eta Beldurra**

Ikusi dugunez, *zenbait pertsonen egite delinkuenteek* eragin zuzena dute jokaera hauek etorkin guztiengana hedatzen dituen aurreiritziarengan. Gainera, delinkuentziak harreman pertsonalak eragozten eta ezjakintasun kulturala eta ezezagunarekiko mesfidantza areagotzen dituen beldur sentipen batean eragina du, delinkuentzia-estereotipoak azal-kolorea, arropa edo hizkuntza bezalako bereizgarriekin lotzeraino. Halaber, delinkuentziak beste jokaera batzuekiko tolerantzia murrizten du, esaterako, zaratarekikoa, edo araukiko errespetu falta immigrazioarekin lotzea.

Bestalde, *etorkinek kanporatuak izateari dioten beldurrak* bertakoekiko harremana oztopatzen du, bertakoengana poliki-poliki hurbiltzera behartu eta antolatzea eragozten die.

Ondorioz, delinkuentzia eteten eta araukiko errespetua bermatzen bada, bizikidetzeta hobetzera doa, harremanak eta bestelako kulturengana hurbilketa eragozten dituen beldurra arintzen den neurrian. Gainera, bestelako kulturengana hurbiltzeak eta haien ezagutza zuzenak delinkuentzia eta immigrazioa lotzen dituen estereotipoa apurtzea ahalbideratuko luke. Halaber, ezagutza pertsonal horrek beraien egoera ilegaletik eratorritako beldur eta konfiantza eza muga ditzake.

### **4.2 Hizkuntza**

Hizkuntza oso aldagai eraginkorra da, harreman pertsonalak eta bestelako kulturengana hurbiltzea eragozten baititu. Etorkinek bertakoekin harremanetan hasteko dituzten zailtasunak direla-eta (paperik eza, egoera sozio-ekonomikoa eta aipatutako komunikazio zailtasunak) aurreiritzien ondorioz etorkinek bakartzea nahi duten irudipena sortzen da jatorriz bertakoak direnengan. Begi-bistakoa da, hizkuntza ez ezagutzeak etorkinen segurtasun eza eta beldurra areagotzen dituela. Halaber, hizkuntzarekin dituzten arazoek lehentasun ezberdinak eta baliabide ekonomiko gutxi izateko joera indartzen dute, lan-merkaturako sarrera erabat



## Urretxuko udala

murrizten baitie.

Ondorioz, hizkuntzaren arazoari erantzuteak bizikidetzan eragina duten aldagai ugari konpontzen lagunduko du. Ikusiko dugunez, arazo honi dagokionez auzo mailan elkarri laguntzeak harreman zuzenak eta ezagutza kulturala izaten eta aurreiritziak eta bizikidetzarako esparru falta gaituzten lagun dezake. Horretaz gain, auzokoen eta etorkinen arteko elkarlana helburu komunak bilatzeko aitzakia bihur daiteke, euskararen defentsa kasu, aldi berean ustezko integrazio nahi faltari buruzko aurreiritzia mugatzen lagunduz.

### **4.3 Lehenetasun ezberdinak eta helburu komun eza**

Etorkinek eta etorkin ez direnek lehenetasun ezberdinak izateak eragina du batez ere ezagutza pertsonal eta kulturala ahalbidera dezaketen espazio publiko eta antolatzeako esparru faltan. Arestian iradoki dugunez, lehenetasun ezberdinak izateak arazo bihur dezake hizkuntza, helburu linguistikoek talka egiten duten neurrian (batzuek euskalduntzea, beste batzuek erabilera praktikorako hizkuntza batean trebatzea), harrera-lurraldearenganako interes falta gisa uler baitaiteke. Aldi berean, lehenetasun ezberdin hauek zenbait kasutan arauekiko errespetu falta gisa ulertzen diren zenbait jokaera azal ditzakete. Modu berean, lehenetasun ezberdinek eta helburu komun ezak integratu nahi ezari buruzko aurreiritziengan eragin dezakete, eta exijentzia jarrerak edo eskubideak eskatzea eta betebeharrak ukatzea azaldu.

Ondorioz, helburu komunak badaudela ikustarazten duten jardueren alde egiteak, harremanak bultzatzeaz gain, aurreiritzi ugari apur litzake, eta etorkinek eta jatorriz bertakoak direnek Urretxuko bizikidetzari hobetzeko duten borondatea nabarmendu. Honetaz gain, etorkinengan zuzenean eragiten duten hainbat aldagairi aurre egiteko borondatea ere nabarmenduko ahalko litzateke, hizkuntza ezberdintasunak edo delinkuentziaren ondorioak, esaterako. Jokabide komunak lantzeko topaleku horiek guztiengan eragiten duten fenomenoari aurre egin liezaiekete, baita, zergatik ez, baliabide ekonomiko eskasiari ere.

### **4.4 Baliabide ekonomiko eskasia**

Baliabide ekonomiko eskasiak bizikidetzari eragiten dio, zalantzarik gabe. Alde batetik, aurreiritzi, estereotipo eta beldur frankoren atzean dago. Beste alde batetik, aurreiritziak direla-eta etorkin guztiengana heda daitezkeen delituzko jarrera bakanen sorburu izan daiteke. Aldi berean, etorkinek duten baliabide ekonomikoaren eskasiak euren jarraitutasun falta, euren antolatzeako zailtasuna eta jatorriz bertakoak direnekiko lehenetasun ezberdintasunak azal ditzake. Egoera ekonomikoak harreman pertsonala oztokatzen du denbora faltagatik, eta harreman kulturala, etorkin erakunde eza dela-eta. Gainera, etorkin askok eskuratzen dituen



## Urretxuko udala

lan-postuen ezaugarriak direla medio, jatorriz bertakoak direnen artean euren kulturaren nagusitasun sentsazioa areagotu daiteke. Etsipenak, errealitatearen ezagutza faltarekin batera, eskubideak exijitzera bultzatzen dituzte etorkinak. Aldi berean, ekonomia krisiak aurreiritziak sortzen ditu diru-laguntzen banaketari dagokionez, batez ere, jatorriz bertakoek ez dutelako jasotzen dituztela aitortzen, eta etorkinek jasotakoak bakarrik ikusten dira.

Aitzitik, testuinguru honetan, biztanleria orori eragiten dion baliabide ekonomikoen murrizketa helburu komunak bilatzeko eta enpatia, ezagutza, harremanak etab. hobetzeko aukera izan daiteke, bakoitzak bestearekin trebetasunak, ezagutzak eta baliabideak partekatu eta komunitate mailan elkarlanerako jokabideen alde egiteko aukera.

### **4.5 Ez ezagutze pertsonal eta kultura artekoa**

Aldagai hau guztien artean garrantzitsuena da, aukeran. Ikusi dugunez beste aldagaiengan eragin handia duten aurreiritziak gehien elikatzen dituenak da. Horrela, ez ezagutze pertsonal nahiz kulturalak etorkinak delinkuentziarekin, arauetikiko errespetu faltarekin eta ustezko integrazioarekiko ukapenarekin lotzen duten aurreiritziak sortzen ditu, edo aurreiritzi hauek gainditzea zailtzen du, behintzat. Exijentzia-jarrera edo eskubide aldarrikapen eta betebehar ukatzeak areagotzen ditu ez ezagutzeak.

Gainera, ezagutza pertsonal ezak ezezagunari beldurra eta enpatia falta elikatzen ditu. Aldi berean, ezinezko bihurtzen du helburu komunak bilatzea, eta ustez kontrakoak diren interesak, baina hala izan beharrik ez dutenak, puzean ditu.

Kultura ez ezagutzeak bertako kulturaren nagusitasunaren ustea eta bestelako kulturen eta ohituren gutxiespena elikatzen du jatorriz bertakoak direnen artean, eta bizimolde anitzten elkar ulertze eta bizikidetzaz zaildu. Beraz, hazkuntza-inguru egokia da bazterkeriarentzat.

### **4.6 Esparru publiko (elkartzeko gune) falta eta etorkin erakunde falta**

Elkartzeko gune ezak ez ezagutze kultural eta pertsonalean eragina du, helburu komunak bilatzea oztopatzeaz eta interesak kontrakoak direlako ustea elikatzeaz gain. Aldi berean, elkargune falta horrek aurreiritziak, mesfidantzak eta beldurrak elikatzen ditu, eta etorkinek integratu nahi ez dutelako ustea onargarri bihurtu.

Horregatik, bizikidetzaz hobetzeko asmoz herriko sektore guztiak ordezkatzeko dituzten pertsonen partaidetza ahalbidetzen duten egiturak sortzea Bizikidetzaz eta Immigrazio Plan baten lehenengo helburua izan behar du litzateke. Hala ere,





## Urretxuko udala

garrantzitsua da nabarmentzea honelako estrategiak ez liratekeela bizikidetza mota bakar batetik (kulturanitza) eratorritako arazoei erantzunak ematera bideratu behar, bizikidetza oro kontutan hartzeraz baizik. Izan ere, bizikidetza kulturanitza bestelako bizikidetzetatik banatzeak immigrazioa arazo iturri gisa eta ez bizikidetza aberasteko aukera gisa ulertzen duten aurreiritziak elikatzen ditu.

Hala eta guztiz ere, etorkin bakoitzaren beharrak direla-eta, etorri berritan batez ere, etorkin elkarteak izatea egokia izango litzateke, etorkin berrien integrazioa errazten dutenak, euren bizipenak azaltzeko aukera izateko, besteei euren kulturaren berri eman ahal izateko, etab. Azkenik, etorkinek herriko gizarte ehunean parte hartzea bultzatu beharko litzateke.



## **5. Herritarrek Urretxu bizikidetzari dagokionez egindako zenbait proposamen**

Goiago azaldu dugun bezala, Urretxun bizikidetzaz zailtzen duten aldagai eraginkorrenak zehaztu ditugu. Aldagaiok zehaztea beharrezko baldintza da, Bizikidetzaz eta Immigrazio Plana garatzeko prozesuaren bigarren fase batean parte hartzaile guztien artean aldagai hauek aldatzeko gai den jardura sorta bat adostu ahal izateko. Horren haritik, urrats bat gehiago egiten saiatu gara, Plana printzipio gidariari nahiz printzipio operatiboari lotzeaz gain Urretxu eguneroko errealitateari moldatzen, gizarte-sareak eta udala bera jardura jakin eta posible batzuetan inplikatuz.

Biztanle sektore ezberdinei zuzendutako jarduerak garatzearen alde egin dugu, talde jakin batek behar bereziak dituen salbu. Badakigu oso gutxi direla etorkinei soilik dagozkien edo etorkinenak besterik ez diren behar bereziak, eta hauetatik gehienek etorri berritan besterik ez dute eragiten. Horregatik, "harrerakoak" izendatzen ditugu jardura hauek.

Etorkinen berezko beharren artean, hizkuntza menperatzearekin eta egoera juridiko-administratiboarekin lotuak nabarmendu ditugu. Hirugarren talde batean, inguruaren ezagutzarekin loturiko berariazko beharrak aipa ditzakegu. Hala ere, azpimarratu beharra dugu behar hauek jatorriz bertakoak direnek ere, edo hauetariko batzuek bederen, izan ditzaketela.

Behar hauei erantzuten dieten berariazko eta behin-behineko neurriek helburu zehatza dute: etorkinek gizarte berri batera heldutakoan aurkitzen dituzten oztopo nagusienak lautuz integrazio prozesua errazteko baldintzak sortzea.

Sarritan gertatzen da (eta kasu honetan erraz egiazta daiteke), ustez etorkinena berezkoa den aldagai bat ikertzean, dagokion beharra bertako biztanleriarengan ere aurkitzea. Ikusiko dugunez, badaude harrerari eta etorkinei begira garatutako zenbait jardura edo neurri, eta hauek bizikidetzaz lantzeko baliabide bihurtzen dira, etorkinen beharrei soilik erantzun beharrean ikuspegi zabalago eta orokorrago bati heltzen dietelako.

Osterantzean, etorkinen beharren erantzuna biztanleria osoari begira garatzen diren neurrien bitartez ziurra daitekeela deritzogu: Batez ere, tratu aldetik berdintasuna eta komunitate-zerbitzu eta zerbitzu publikoetara sarbide normaldua ziurtatuz.

Asko dira har ditzakegun neurriak kezkatzen gaituen gaiari begira. Arazoak bizitzaren alderdi guztiei eragiten diela aintzat harturik, mugagabea da ekiteko aukeren kopurua. Arazo jakin batzuk derrigorrez zeharkako neurrien bidez landu behar direla nabarmentzea garrantzitsua da, generoaren edo gazteriaren inguruko gaiak kasu.



Bestalde, 2009-2012ko Gipuzkoako Immigrazio Foru Planak jasotzen duen eta geuk zuzendutako lantegi eta elkarrizketetan aipatzen zen legez, oinarritzko zenbait kontu daude, euren garrantziagatik landu eta konpondu behar direnak:

- Etxebizitza eta Lana: Pertsona ororen, etorkinen zein jatorriz bertakoen zutabe nagusiak dira, eta beraz, Gipuzkoan bizitzeko asmoa duen edozein etorkinen lehentasunezko beharrak.
- Formakuntza eta Informazioa: Etorkinak bertako biztanleriaren aldean desabantaila egoeran kokatzen dituen oztopo nagusienetariko bat harrera-gizartearen funtzionamenduari buruzko ezagutza eza da. Kasu batzuetan, ez ezagutze honek zerikusia du etorkinek erabiltzen dituzten zerbitzu eta baliabideei buruz harrera-gizarteak ematen dituen interpretazio edo argibide okerrekin.
- Esparru Dinamizatzaile eta Kultura artekoak: Neurri hauek guztiz zeharkako ikuspegi batetik landu behar dira, hots: oraingo eta etorkizuneko gizartearen parte izango diren gizatalde berrien onarpenetik. Lan ildo hauekin harmonia-giroa bultzatu nahi da, gizarte osoari zuzendurik, etorkin taldeen eta jatorriz bertakoen artean bereizi gabe.

Horrela, inplikaturik dauden eremu edo sailak ia guztiak direla ohar gaitzke, eta horregatik aurre egin beharko diogun auziaren konplexutasuna. Halaber, alderdi politikoek auzi hauek euren arteko borrokan ez erabiltzea premiazkoa da. Auziok zorrotasunez lantzen direla ziurtatzen duen hitzarmena erdiestea oinarritzko baldintza da.

Ohar hau eginda, herria sakonki ezagutuz eta aurreko kapituluan aipatutako aldagaiei dagokienez aurretik ados jarrita Urretxu herritarrek proposatutako jarduera edo neurriak aipatuko ditugu jarraian. Zerrendatuko ditugunetatik zenbait beste toki batzuetan garatu izan direla zehaztea komeni da, baita ez direla konponbide "magikoetan" oinarritzen ere. Prozesuan parte hartu dutenen iritziz, norabide egokirantz hurbiltzeko urrats batzuk baino ez dira.

### Neurri edo jarduera eragileak

### Bizikidetza mahai mistoa

**Helburu orokorra:** Herrian partaidetza-kultura eta bizikidetza hobetzea, biztanleria eta Herri Administrazioaren harremana eta lankidetza bultzatuz.

*Orain arte prozesuan nolabait parte hartu duten herritarrak dira sare*



## Urretxuko udala

*sozialen sorkuntzarako gakoa, Urretxuko biztanle guztiak herriaren parte sentitzea ahalbidetuko duen gune baten sorkuntzarako. Sare hau, inolako mugarik jarri gabe, tresna garrantzitsu izan daiteke Urretxuko zenbait bizilagunen ustez beste batzuen artean bizikidetzarako oztopo diren ez ezagutzea, hizkuntza, beldur, erakunde falta eta abarrei aurre egiteko. Gure ustez, bizikidetzeta-egitura honek Plan honen baitan martxan jarriko diren jarduerak, neurriak eta ekimenak antola eta abiaraz ditzake. Horregatik, sare hau sortzeak lehentasuna duela iruditzen zaigu.*

Helburu espezifikoak:

- Biztanleria osoa ordezkatzeko duten partaidetza-egitura iraunkorrak sortzea
- Herriko bizikidetzan eragile zuzenak edo zeharkakoak direnen ezagutza hobetzea
- Proposamen adostuak eta errealistak garatzea
- Biztanleria antolatu nahiz ez antolatuarentzat erreferentzia izatea, bizikidetzarekin lotutako gaiak dagokienez.

**Deskribapena:** Gizarte eragile ezberdinen artean partaidetza eta harreman iraunkorreko gunea izango litzateke, bizikidetzarekin lotutako gaiak herriko ikuspegi batetik landu ahal izateko. Eguneroko arazoak zehazteko, lehentasunak adosteko eta biztanleria antolatuaren nahiz ez antolatuaren artean hitzarmenak eta elkarlana sortzeko.

**Baliabideak:** Neurri hau martxan jartzeko, elkartzeko lokal bat erabiltzeko aukera, behintzat, beharrezkoa izango litzateke. Halaber, internet eta sare soziala bultzatzeko gainerako baliabideak eskuragarri izatea behar-beharrezkoa da. Horretaz gain, erakunde publikoek neurri hau sustatu beharko lukete, beharrezkoa dena eskainiz (zuzenbidean prestakuntza duten teknikariak, idazkaritza, etab.). Azkenik, biztanleria antolatuaren nahiz ez antolatuaren ekarpena erantzukizuna izango da. Erantzukizunez jokatu beharra dugu oinarrizko bezain beharrezko den gai honen aurrean, gure kale eta etxeetako bizikidetzeta.

Landuko diren aldagaiak:

- Delinkuentzia eta beldurra
- Lehentasunak eta helburu komun falta
- Ez ezagutze pertsonala eta kultura artekoa
- Espazio publiko eta elkartzeko gune falta

Adierazleak:

**Inpaktu adierazleak:**

- Udalaren eta biztanleriaren arteko harremanaren hobekuntza
- Partaidetza-kulturaren areagotzea
- Bizikidetzaren hobekuntza maila (beldurraren eta delinkuentziaren beherakada)



## Urretxuko udala

### **Eragin adierazleak:**

- Aniztasuna mahaiaren osaketan
- Biztanleriaren ordezkariak mahaian
- Erakunde publiko eta biztanleriaren ordezkariaren arteko oreka
- Parte-hartzaileen asetze maila

### **Gauzatze adierazleak:**

- Egindako batzarren kopurua
- Batzarretako parte-hartzaileen kopurua
- Landutako gaien kopurua
- Proposatutako jardueren kopurua
- 

## Telesaila

---

**Helburu orokorra:** Udalerriko eta inguruko errealitate ezberdin eta anitzekiko sentikortasuna bultzatzea. Problematika askoren izaera partekatuari buruzko sentikortasuna bultzatzea, jatorria edozein izanda ere.

*Nortasun, ohitura, bizimolde, historia eta itxaropen anitz... azken batez, gaur egungo Urretxun aurki ditzakegun mundu ezberdin ugari erakuts eta aintzatetsi daitezke herritarrek parte hartzen duten ikus-entzunezko emankizun baten bidez. Emankizuna bera elkarlan-esperientzia da.*

Helburu espezifikoak:

- Bizikidetzarekin lotutako gaiei dagokienez, udalerriko pertsonen eta elkarten partaidetza bultzatzea.
- Baliabide honen bidez Urretxuko bizikidetzaren hobekuntzan lagunduko luketen balioak zabaltzea.
- Jatorria edozein izanda ere, denok elkartzen gaituena banatzen gaituena baino gehiago dela erakustea.
- Arazo ezkuak erakustea
- Biztanleriaren partaidetzarako ildo berria sortzea

**Deskribapena:** Telesail bat ekoiztea litzateke, Urretxuko bertako aktoreekin. Telesaila garatu ahala, prozesuan zehar azaldu diren auziak (elkarrizketetan, lantegietan, etab.) edota bizikidetzaren landuko duten etorkizuneko sareetan ager daitezkeenak kontutan har daitezke. Egitasmo hau prozesua zabaltzeko lagungarri, eta jada taxutzen hasia den problematika lantzeko tresna izan daiteke. Filma edo telesaila baliabide interesgarria izan daiteke dauden errealitateak islatzeko, baita herrian sareak eta harremanak ehuntzeko ere, partaidetza bultzatuz.

**Baliabideak:** Historian parte hartuko duten Urretxuko boluntarioak aurkitzea beharrezkoa da. Horrela, gertakizunen hurbiltasunak eta aktoreak



## Urretxu

ezagunak izateak interes berezia sortuko luke. Urola Telebistaren baliabide teknikoak eskuragarri izatea litzateke egokiena. Halaber, erakunde publikoek bestelako lanabesez lagundu beharko lukete (diru-laguntzak, laguntza teknikoa, etab.)

### **Landuko diren aldagaiak:**

- Delinkuentzia eta beldurra
- Lehentasunak eta helburu komun falta
- ez ezagutze pertsonala eta kultura artekoa
- Espazio publiko eta elkartzeko gune falta

### Adierazleak:

#### **Inpaktu adierazleak:**

- Existitzen diren errealitatei buruzko biztanleriaren ezagutza maila
- Kulturartekotasunarekiko sentikortasun maila

#### **Eragin adierazleak:**

- Aniztasuna parte-hartzaileen artean
- Telesailean lantzen diren gaien kopurua
- Jardueraren iraunkortasun maila
- Parte-hartzaileen asetze maila

#### **Gauzatze adierazleak:**

- Egindako batzarren kopurua
- Ekoiztutako materiala eskuragarri izango duten herritarren kopurua
- Telesailaren erakustaldi kopurua

<b>Neurriak edo jarduerak, arloz arlokokoak edo zehatzak</b>
--

---

### **Mintza laguna:**

**Helburu orokorra:** Urretxuko herritarren arteko harremanak erraztea, euskara erabiliz

*Etorkinei bereziki zuzendutako neurria izan arren, biztanleria osoari zuzendutako hezkuntza-neurrien artean koka daiteke.*

### **Helburu espezifikoak:**

- Herritarren artean harreman berriak sortzea, euskara irakatsi eta erabiliz.
- Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea
- Hizkuntza menperatzen ez dutenen integrazioa erraztea

**Deskribapena:** Egitasmo honen funtsa euskaldun berriei euskara praktikatzeko aukera eskaintzea da, euskaltegietako ikasgeletatik kanpo, giro lasaian eta euskaldun zaharrek lagunduta. Zenbait eremutan garatu izan da azken



## Urretxuko udala

urteotan, euskaltegiek eurek bultzatuta edota autogestioaren bidez. Jarduera hau harrera-fase batean euskaraz batere ez dakiten etorkinak oinarrizko hiztegiak jabetzeko baliagarri izan daiteke (agurrak, eskerrak, etab.), eta oharrak, dendetako eta erakundeetako errotuluak etab. ulertu ahal izateko.

**Baliabideak:** Proposamen hau jendeari euskara irakasteko prest dauden pertsonekin gara liteke, ordutegia malgua eta norbere egoerari moldatua izanik. Ildo honetan hainbat ekimen garatu izan dira, era informalean (ez dira aski izan, eta ez dira aski ezagutzera eman, bertan parte hartu zuten batzuen arabera).

### **Landuko diren aldagaiak:**

- Hizkuntza
- Lehenetsun ezberdinak eta helburu komun falta
- ez ezagutze pertsonala eta kultura artekoa
- Espazio publiko (elkargune) falta eta etorkinen antolakuntza falta

### **Adierazleak:**

#### **Inpaktu adierazleak:**

- Parte hartzaileen arteko harremanen hobekuntza

#### **Eragin adierazleak:**

- Ekimenean parte hartzen duten boluntarioen kopurua
- Parte hartzaileen euskararen hobetze maila
- Ekimenaren jarraitutasuna
- Parte-hartzaileen asetze maila

#### **Gauzatze adierazleak:**

- Egindako saioen kopurua
- Parte-hartzaileen kopurua

Hizkuntzarekin lotutako jarduerak martxan jartzeari dagokionez, ondorengoak aintzat hartzea garrantzitsua da:

- Irakasbide, ordutegi eta formatu anitz eta malguak erabiltzea, egoera sozioekonomiko ezberdinetako pertsonen partaidetza errazteko.
- Parte hartzaileen benetako interesguneekin lotzea
- Lurralde berean burutzen diren antzeko ekimenen artean koordinatzea, parte hartzen duten erakundeen eskarmentua batu asmoz.

---

## **Harrerarako herritar sarea**

**Helburu orokorra:** Bizilekuarekin, lanarekin etab. lotutako tramite formalei eta udalaren zein bestelako administrazioen funtzionamenduari buruzko ezagutza hobetzea, herritarrek eta Udalak lagundurik.

### **Helburu espezifikoak:**

- Herritarrek kanpotik datozenen harreran laguntzea
- Aipatutako gaietako buruzko informazioa era eraginkorrean prestatu eta



## Urretxuko udala

zabaltzea

- Kanpotik datozenentzat nahiz udalerrian eta lurraldean dauden baliabideei buruz argibideak eskatzen dituen beste edozeinentzat erreferentzia izatea.
- Argibideak eskuratzeko dauden sistemak hobetzea

**Deskribapena:** Etorkinei harrera egiten laguntzeko prest dauden pertsonen sarea, argibideak jasotzeko eta ingurua, toki publiko garrantzitsuenak etab. ezagutzeko erreferente izango litzatekeena. Jatorri ezberdinetako pertsonak ere parte hartzen duten taldea izan liteke, iristen direnentzat erreferentea. Maila ezberdinetako jarduerak antola daitezke: Alde batetik, lehendabiziko harremanak errazteari zuzenduta, eta bestalde, zenbait gaitan sakontzeari begira. Azken hauek, administrazio publikoaren funtzionamenduari edota udal baliabide ezberdinen ezagutzari dagozkionak gainerako biztanleriarentzat ere lagungarri gerta daitezke. Hortaz, herritar guztiei zuzen dakizkieke.

**Baliabideak:** Sareak lan-harreman estua izan behar luke Udalarekin (edo berau ere sarearen parte izan), bitartekari garrantzitsua izan beharko litzateke, argibide eta baliabide jakin batzuek eskuragarri jartzeko orduan. Aldi berean, Udalak herrira iristen diren pertsonen eragiten dieten auzi zehatzei buruzko informazioa jasotzeko erabil lezake sarea, ahalik eta zerbitzu egokiena eskaintzea helburu. Eskaintza guztien berri eman beharko litzateke (diru-laguntzak, ikastaroak,...), jende guztiak ulertu eta eskuratu ahal izateko eran, aukera berdintasuna bermatuz, jatorria nahiz jatorrizko hizkuntza edozein izanda ere.

Etorkinei dagozkien eskakizun juridiko-administratiboetan adituak diren pertsonen sarean parte hartzea komenigarria litzateke (horrek kasu askotan udalerrri-maila gainditzea esan nahi badu ere), bizi-proiektu autonomoa garatzeko oztopo garrantzitsu bat hortxe baitatza. **Dauden arreta-zerbitzu juridiko-administratiboekin koordinatzea ere garrantzitsua iruditzen zaigu, ondorengo oinarritzko gaiak lantzeko:**

- Babesari buruzko aholkularitza
- Bizileku-baimena eta lan-baimena, birbatze familiarra eta herritartasunari dagozkien tramiteak
- Kanporatze-aginduak
- Ikasketen baliozkotzea

### **Landuko diren aldagaiak:**

- Delinkuentzia eta beldurra
- Hizkuntza
- Baliabide ekonomiko eskasia
- Ez ezagutze pertsonal eta kultura artekoa

### **Adierazleak:**

### **Inpaktu adierazleak:**





## Urretxuko udala

- Leku ezezagun batera heltzean landu behar diren gaiei buruzko ezagutza hobetzea
  - Beharrezko tramiteen eta ibilbide posibleen hobekuntza
- Eragin adierazleak:**
- Sarea osatzen duten pertsonen pluraltasuna
  - Erakundeen eta biztanleriaren ordezkartza orekatua
  - Parte-hartzaileen asetze maila
- Gauzatze adierazleak:**
- Parte-hartzaileen kopurua
  - Zerbitzua jaso dutenen kopurua
  - Pertsona hauek egindako tramiteen kopurua

Ingurua ezagutzea helburu duten jarduerak ondorengoak aintzat hartu beharko lituzkete:

- Ondorengo gaiei hurbilketa: Herritarraren eskubide eta beharrak, baliabide publikoak, administrazioaren funtzionamendua
- Bertako ohitura eta harrera-gizarteko bizimoldeekin lotutako gaiak lantzea komenigarria iritziz gero, homogeneitate irudi faltsurik ez zabaltzea ezinbestekoa da.
- Udal zerbitzu guztiek parte hartu beharko lukete jarduera hauetan (zeharkakotasuna).

---

## Kultura arteko gunea

**Helburu orokorra:** Bizikidetzaren Planaren baitan edota hemendik kanpo antolatzen diren jardueretan elkartzeko eta dinamizatzeko gune izatea.

### Helburu espezifikoak:

- Bizikidetzarekin lotutako jarduerari jarraitutasuna ematea
- Biztanleria antolatuarentzat baliabide izatea
- Harremanak eta sareak sortzea eta elkartzea erraztea

**Deskribapena:** Urretxuar guztientzat irekiak diren egitarauak modu iraunkorrean garatzeko gune soziokulturala izango litzateke. Bestelako kultura eta errealtateei buruzko ezagutzan sakontzea luke xede, eta elkargunea izatea.

**Baliabideak:** Langileak beharko liriteke dinamizatze lanetarako eta jardueren egitaraua jarraitutasunez garatzeko, era egonkorrean. Herritarrekin egindako lantegietan aipatu zen, gune honek telefonotegi baten antza izan zezakeela, toki hauek etorkin gehienentzat erreferentzia-puntu izaten baitira. Elkargune bihurtzeko ahaleginak egin beharko liriteke, jatorriz bertakoek ere



## Urretxuko udala

hurbildu eta parte har dezaten.

Komenigarria litzateke Urretxuko herritarrek izatea esparrua gestionatzen dutenak, ezarriko diren irizpideen arabera, denon eta denontzako tokia sortuz.

### **Landuko diren aldagaiak:**

- Lehentasunak eta helburu komun falta
- Ez ezagutze pertsonal eta kultura artekoa
- Espazio publiko (elkargune) falta eta etorkinen antolakuntza falta

### **Adierazleak:**

#### **Inpaktu adierazleak:**

- Bizikidetzarekin lotutako jardueretan elkargunea izatea

#### **Eragin adierazleak:**

- Gune honetan parte hartzen duten pertsonen eta taldeen pluraltasuna
- Abian jarritako jardueren kalitatea
- Gunearen ezagutza maila herritarren artean
- Parte-hartzaileen asetze maila

#### **Gauzatze adierazleak:**

- Proposatutako jarduera kopurua
- Parte-hartzaile kopurua

---

## **Denbora bankua**

**Helburu orokorra:** Urretxuko herritarren arteko lankidetzaren sare sozialak sortzea.

### **Helburu espezifikoak:**

- Hainbat behar asetzea diru-trukerik gabe
- Urretxuarrek elkar hobeto ezagutzea, harremanak hobetzea
- Jakiteak balioztatzea, balio ekonomikoaz haratago
- Herritarren artean konfiantza sortzea

**Deskribapena:** **Denbora bankua** zerbitzuak denborarekin trukatzeko sistema da. Bertan, trukaneurria ez da ohiko dirua, denbora-unitate bat baizik. Zerbitzuak zerbitzuekin edo mesedeak mesedeekin trukatzeko sistema da. Harreman sozialak eta gizarte-estrategien arteko berdintasuna sustatzea du helburu. Proposamena tankera honetako ekonomia merkatu-ekonomiako hainbat arazoari konponbide emateko erabiltzea da, ekonomia osagarri edo merkatu alternatibo gisa. Egun, egitasmo hauek indartu ditzakegu informazio teknologiarren bidez. Demagun, esaterako, zenbait lagunek diru-falta baino denbora falta izatea, eta trukaneurria denbora izanik denbora-mailegu bat hartzeko prest egotea. Horrela, ohiko finantza-sistemetan legez, transferentzia bat egingo litzateke (kasu honetan denbora transferituko da), superabit eremuetatik eremu defizitarioetara, errentagarritasun baten truke jakina, trukaneurria kasuz kasu moneta ala denbora



## Urretxuko udala

*izanik*. Wikipedia (es).

**Baliabideak:** Gaztetxean, zenbait lan egiteko denbora trukatzearen aukerari buruz hitz egiten hasi dira. Oraindik garatu gabe dagoen arren, proposamena interesgarria izan daiteke, egoera ekonomiko larrian dauden pertsonen laguntzeaz gain Urretxuarrek elkar hobeto ezagutu eta elkarrekiko konfiantza hobetzeko eta ekoizpen-sistemeekin zuzeneko lotura ez duten jakiteak balioztatzeko.

### **Landuko diren aldagaiak:**

- Delinkuentzia eta beldurra
- Lehentasan ezberdinak eta helburu komun falta
- Baliabide ekonomiko eskasia
- ez ezagutze pertsonal eta kultura artekoa
- Espazio publiko (elkargune) falta eta etorkinen antolakuntza falta

### **Adierazleak:**

#### **Inpaktu adierazleak:**

- Sare berriak sortu izana
- Sare horien kohesioa

#### **Eragin adierazleak:**

- Egitasmoaren jarraitutasun eta iraunkortasun maila
- Parte hartzen duten pertsonen edota taldeen kopurua

#### **Gauzatze adierazleak:**

- Trukatutako "zerbitzuen" kopurua
- Onuradunen kopurua

### **Bizikidetzaren hobetzeko neurriak edo jarduerak (bereziki etorkinentzat izan gabe, zabalak eta integratzaileak baizik)**

Irizpide orokor gisa, komenigarria da udal zerbitzuek eta jarduerak beharrei erantzutea aurretik zehaztutako herritar talde batzuei baino. Herritar talde bati bereziki zuzendutako neurriak martxan jartzea zilegi da, baldin eta talde horrek berariazko beharrak baditu, gainerako biztanleek ez dituztenak.

Neurri-sorta bat bereziki herritar talde bati zuzentzea beharrezkoa baderitzogu, eragin kaltegarriak zein baztertzailak sortzeko arriskua aintzat hartu behar dugu.

Udal jarduera eta zerbitzuak zehaztu eta garatzeko orduan, herritar talde ezberdinetako pertsonen parte hartu ahal izateari jarriko diogu arreta (emakumezkoak nahiz gizonezkoak, jatorri, hezkuntza eta ekonomia maila ezberdinetakoak, trebetasun eta denbora ustiatzeko modu ezberdinak dituztenak).

Gure zerbitzuak, egitarauak eta egitasmoak denontzat egokiak direla bermatu beharra dugu, bakoitza zein gizarte taldearekin edo taldeekin



## Urretxuko udala

identifikatzen den gorabehera. Gainera, ekimen publikoetan mota guztietako pertsonen parte hartzea normaltasunez ikustera ohituko lirateke herritarrak.

### **Udalaren jardueretan erabilitako irizpideei buruz informatzeko estrategiak**

---

Informatzeko estrategiak garatzea izango litzateke, kanpaina berezituetatik hasi eta zerbitzu publikoetako komunikazio-protokoloetaraino helduz. Honela, biztanle guztiek udalaren jarduerak eta baliabide publikoen banaketa gidatzen dituzten irizpideak, baita hauek onartzeko arrazoiak ere, ezagutzeko aukera izango lukete.

Horren haritik, beharrezkoa da zerbitzuen erabiltzaileei baliabideak era batean edo bestean zergatik banatzen diren hobeto azaltzea. Esaterako, ageriko eta publikoak izan beharko lirateke gizarte arloko diru-laguntzen esleipenak, baita euren erabilpen zehatza ere, bere esleipenaren zergatiaren inguruan uste okerrak saihestu asmoz.

Argi geratuko da horrela, baliabideak ez direla besterik gabe gizarte talde jakin batzuei zuzenduak —honek talde hauekiko aurreiritziak areagotuko bailituzke —, behar jakin batzuei erantzuten dietela baizik. Gerta daiteke 'talde' jakin batzuek zenbait baliabideren behar handiagoa izatea, baina ez dituzte baliabideak jasotzen talde horretako kide direlako, behar hori dutelako baizik.

Udalerriko pertsona orori helduko zaion eta argibide zehatz eta ulergarriak izango dituen euskarri baten bidez gauzatu beharko litzateke egitasmoa.

#### **Landuko diren aldagaiak:**

- Delinkuentzia eta beldurra
- Kultur arteko ezagutzarik eza

#### **Prestakuntza jarduerak**

---

Proposatzen den prestakuntza mota, lan-egoera zaila batean dauden lagunek lanbide bat ikastea ahalbideratuko duena da (egun eskaintzen diren oinarriko informatika ikastaroen haratago). Enpleguari lotutako prestakuntza izan dadila.

#### **Landuko diren aldagaiak:**

- Baliabide ekonomiko eskasia

#### **Parte-hartzea eta asoziazionismoa sustatzeko jarduerak**

---

Azkenik, proposatzen den beste ideia bat **parte-hartzea bultzatzeko**



## Urretxuko udala

**premia** da, batez ere, udalerrian denbora laburrez bizi diren pertsonen artean. Hemen jaio direnek edo denbora luzeagoz bizi direnek parte-hartzea balore gisa barneratu ez badute, lehentasuna oinarrizko premiak asetzea dutenentzat are zailagoa izango da hau barneratzea. Horregatik bultzatzeko premia.

Etorkinen elkarterik ez egotea zailtasun bat da, zalantzarik gabe. Horixe da hainbat pertsonen eskatzen dutena, euren ezagunen artean prestasun handirik ez dagoela aitortu arren (ezta gure ezagunen artean ere). Parte hartu nahi izatea, bakoitzaren beharrak gorabehera, bakoitzaren borondatearen arabera da neurri handi batean (lokal ezak etab. ere eragina izan arren). Erakundeek parte-hartzea bultzatu beharko lukete, horrela beldurra aldagaiari eragingo genioke-eta, batez ere, legez kanpoko egoeran daudenek jasaten duten beldurrari.

### **Landuko diren aldagaiak:**

- Beldurra eta delinkuentzia
- Lehentasun ezberdinak eta helburu komun falta
- ez ezagutze pertsonal eta kultura artekoa
- Espazio publiko (elkargune) falta eta etorkinen antolakuntza falta

### **Deskribatutako jarduerak berretsi eta indartzen dituzten beste zenbait aukera...**

Prozesua jendartera eramateko orduan, **kaleko ekimenak** antola daitezke, jolas eta jai giroan: Munduko Arrozak bezalako ekimenak, esaterako. Arroza kultura gehienetan da elikagai, beraz kultura ezberdinen arteko zubi gisa jokatzen du. Ekimen hauek askotan konturatu ez arren inguruan daukagun aniztasun eta aberastasuna (kasu honetan, sukaldekoa) kalera ateratzeko bide dira. Baina hau bezalako ekimenek arrakasta izan dezaten, aurreko hilabeteetan zehar lan handia egin beharra dago, eta lan hau egin ahal izatea bera lorpen bat izango litzateke, sarea ehuntzeko aukera. Auzotarrek kontatutako istorioak, hainbat hizkuntzako kartel anitz, kalejirak, ipuinak, lo kankak, musika, gonbidapen zuzenak... Dirudiena baino konplexuagoa den prozesua jendartera hurbiltzeko moduak dira.



## 6. Bibliografía

Álvarez Dorronsoro, Ignasi. "La gestión de la diversidad: Construcción y neutralización de las diferencias", Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho, nº 0, Mayo 1998.

Ayuntamiento de Parla. Concejalía de Bienestar Social. Área Social INTEGRACIÓN y CIUDADANÍA: "Guía para aplicar la perspectiva de la gestión de la diversidad a los procesos de integración en el ámbito municipal"

Blanco, Cristina. "Los procesos migratorios: identidad, pluralismo y ciudadanía" en Manzanos, César (coord.). "Inmigración y culturas minorizadas". Ikusbide, Vitoria-Gazteiz, 2007.

Cardús i Ros, Salvador. "Ciudadanía e identificación política. De la sociedad multicultural a la nación brújula. Apuntes para un análisis de la sociedad catalana actual.", en Sampedro, V. y Llera, M. (eds.) "Interculturalidad: interpretar, gestionar y comunicar", Bellaterra, Bartzelona 2003.

Delgado, Manuel. "Sociedades movedizas. Pasos hacia una antropología de las calles", Anagrama, Bartzelona, 2007.

Delgado, Manuel. "Círculos virtuosos. Nuevos lenguajes para la exclusión social", in Roberto Bergalli, arg., "Flujos migratorios y su (des)control. Puntos de vista interdisciplinarios", Anthropos, Bartzelona, 2006, pp. 1-24

Franzé, Adela; Casellas, Lorenzo y Gregorio, Carmen "Intervención social con población inmigrante: peculiaridades y dilemas". In Migraciones, 5, 1999.

Giménez Romero, Carlos. "Planteamiento multifactorial para la mediación e intervención en contextos multiculturales. Una propuesta metodológica de superación del multiculturalismo", Granada, 2002 in F.J.GARCIA CASTAÑO eta C.MURIEL LOPEZ (arg.) "La inmigración en España: contextos y alternativas". Volumen II. Actas del III Congreso sobre la Inmigración en España. Granada Laboratorio de Estudios Interculturales.

Giménez Romero, Carlos. "Convivencia. Conceptualización y sugerencias para la praxis" en Puntos de vista. Cuadernos del observatorio de las Migraciones y la Convivencia intercultural de la ciudad de Madrid, nº 1, 2005eko apirila/maiatza.

Gipuzkoako Foru Aldundia: "Plan Foral de Inmigración 2009-2012. Actuaciones desde el Departamento de Política Social", 2009.

González Portilla, Manuel; García Abad, Rocío. "Migraciones interiores y



## Urretxuko udala

migraciones en familia durante el ciclo industrial moderno. El área metropolitana de la Ría de Bilbao” Universidad País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006, in [www.ub.es](http://www.ub.es), *Revista electrónica de Geografía y Ciencias Sociales*, Bol. X, zb. 218 (67), 2006 abuztua.

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. “Plan Estratégico de Ciudadanía e Integración” 2007-2010.

Melucci, Alberto. “Vivencia y convivencia”, Trotta, Madril 2001.

Morales Navarro, Julián; Abad Márquez, Luis V. “Introducción a la sociología”. Técnos, Madrid, 1996.

Onghena, Yolanda. “Reinterpretar para gestionar la diversidad cultural” en Sampedro, V. y Llera, M. (arg.) “Interculturalidad: interpretar, gestionar y comunicar”, Bellaterra, Bartzelona 2003.

Pajares, Miguel. “La integración ciudadana. Una perspectiva para la inmigración”. Icaria. Bartzelona, 2005.

Pizarro, Maribel; Gómez, Laura; Larrañaga, Idoia: “Diagnóstico participativo sobre la situación de mujeres y hombres en la comarca de Urola-Garaia”, 2005

Stiglitz, Joseph: “El malestar en la globalización.” Taurus, Buenos Aires, 2002.

Sutcliffe, Bob: “Nacido en otra parte. Un ensayo sobre la inmigración internacional, el desarrollo y la equidad.” Hegoa, Bilbo, 1999

Urretxu Udalak: “Estudio-Diagnóstico sobre la inmigración en Urretxu”, Prospektiker, 2009.